

# Elebitasuna eta kode bateraketa zein bereizketa: oinarri teorikoak<sup>1</sup>

(Code fusion and code separation in early bilingualism:  
Theoretical Grounds)

Barreña, Andoni  
Univ. Salamanca  
Dpto. de Lengua Española  
Fac. de Filología  
Plaza de Anaya, 1  
37008 Salamanca

Almgren, Margareta  
Frai Juan Zumarragako Batxilerrer Institutua  
Frai Juan Zumarragako kalea, z/g  
48200 Durango

BIBLID [1137 - 4446 (2000), 12; 9-30]

---

*Lan honetan jabekuntza elebidunaren arloko hainbat oinarritzko kontzeptu aztertzen dira. Noiz eta nola entzun eta garatu behar dituzte haurrek hizkuntza biak jabekuntza aldi berekotzat hartua izan dadin? Zertan dautza ezberdintasunak hizkuntza bi aldi berean garatzen direnean edo bietako bat bigarren hizkuntza legez eskuratzen denean? Bada ezberdintasunik hizkuntza biak etxean garatzen direnean edo bietako bat eskolaren bidez erdiesten denean? Hizkuntzetariko bat bigarren hizkuntza legez eskolan ikasita, elebidun izatera heltzen diren haurrek garapen ezberdina ote dute? Garapen bera erakusten dute gramatika gaitasunak eta pragmatika gaitasunak?*

*Giltz-Hitzak: Bigarren hizkuntzaren jabekuntza. Elebitasuna. Gramatika-bateraketa. Gramatika bereizketa. Hizkuntza-jabekuntza. Jabekuntza elebiduna. Kode-aldaketa. Kode-nahasketa.*

*En este artículo, los autores analizan algunos de los conceptos básicos de adquisición bilingüe de lenguas. ¿Cuándo y cómo deben los niños desarrollar sus dos lenguas si queremos que el desarrollo sea considerado simultáneo? ¿Cuáles son las diferencias entre el desarrollo simultáneo de ambas lenguas y la adquisición de una de ellas como segunda lengua? ¿Hay diferencias entre aprender ambas lenguas en casa o una de ellas en casa y la otra en la escuela? ¿Los niños que se convierten en bilingües por adquisición de la segunda lengua en la escuela dan muestras de un desarrollo diferente? ¿La competencia gramatical y pragmática se desarrollan de la misma manera?*

*Palabra Clave: Adquisición bilingüe. Mezcla de códigos. Alternancia de códigos. Bilingüismo. Fusión gramatical. Separación gramatical. Adquisición de la lengua. Adquisición de una segunda lengua.*

*Dans cet article, les auteurs analysent quelques-uns des concepts de base de l'acquisition bilingue. Quand et comment les enfants doivent développer leurs deux langues si nous désirons que le développement soit considéré simultané? Quelles sont les différences entre le développement simultané des deux langues et l'acquisition de l'une d'elles comme langue seconde? Y a-t-il des différences entre apprendre les deux langues à la maison ou l'une des deux à la maison et l'autre à l'école? Les enfants qui deviennent bilingues par acquisition de la langue seconde à l'école montrent-ils un développement différent? La compétence grammaticale et pragmatique se développe-t-elle de la même manière?*

*Mots Clés: Acquisition bilingue. Mélange de codes. Changement de codes. Bilinguisme. Fusion grammaticale. Séparation grammaticale. Acquisition de langue. Acquisition de seconde langue.*

---

<sup>1</sup> Ikerlan hau Espainiako MEC-eko DGICYT erakundeak PB98-0239 proiektuari emandako laguntzari esker zor diogu, neurri baten behintzat. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu proiektukide guztiei.

## 1. ELEBITASUNA ETA HIZKUNTZ JABEKUNTZA

Badago halako eritzi bat, eritzi orokortzat jo dezakeguna, hizkuntzaren jabekuntza elebarktasunean gertatzen dela uste duena. Haurrek ama hizkuntzatzat ele bakar bat baino ez dutela ikasten, alegia. Gainera, jabekuntza elebakarra senitartearen bidez gertatzen dela uste da.

Edonola ere, bada hizkuntza jabekuntza elebiduna. Hots, senitartean hizkuntza bi entzun eta ikasi egiten duten haurrak ere badira. Munduan zehar eta gure gizartean jabekuntza elebiduna egoera arruntzat jo dezakegu, gainera.

Alabaina, elebitasunaren kontzeptuaz definizio ezberdinak ikus ditzakegu. Haurrek elebitasunera heltzeko jarraitzen dituzten bideak ugariak direnez, elebitasunaren kontzeptua ezin daiteke bat bakarra izan. Badira senitartearen bidez elebitasuna eskuratzen dutenak. Beste batzuk, ostera, eskolaren bidez jasotzen dute elebitasuna txiki-txikiak direnean. Elebitasuna gizartean erdiesten dutenak ere badira.

Noiz esan dezakegu hizkuntz jabekuntza elebiduna dela? Zein baldintza bete behar ditu hizkuntz jabekuntzak horretarako? Zenbait aldagai banan-banan aztertuko ditugu.

1. Noiztik entzuten ditu hizkuntza biak haurrak? Adibidez, McLaughlin-entzat (1978) nahiko da hizkuntza biak hiru urte izan orduko entzutea jabekuntza elebiduna izateko. Padilla & Lindholm-entzat (1978), ordea, jaiotzatik entzun behar dituzte hizkuntza biak jabekuntza elebiduna izan dadin. De Houwer-entzat (1987) nahikoa izango da hilabetea izan aurretik hizkuntza biak entzutea.

Eritzi hauek eta antzeko beste asko irakur edo entzun ditzakegu. Halere, nazioarteko ikerlari gehienek jabekuntza elebiduntzat jotzeko hizkuntza biak oso txikitatik entzun eta ikasi behar direla uste dute. Honek ez du esan nahi gizakiek ezin dugunik beranduago bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasi. Hizkuntzaz jabetzeko garapenaz ari gara, eta beraz hasierako jabekuntza elebakarra edo elebiduna (edo eleaniztuna) den eztabaidatzen.

2. Jabekuntza elebiduntzat jotzeko, kontuan izan behar dugun bigarren aldagaia entzundakoaren edo inputaren kantitatea eta nolakotasuna dira. Nolabait, elebiduna izan dadin, hizkuntza biren arteko oreka gertatu beharko da. Ez dugu esan nahi erdia eta erdia izan behar denik, baina bai orekatua. Agian ez dago konputatzerik, baina badago minimo bat, ezinbestekoa dena. Gainera ez da soilik kantitatea neurtu behar, nolabait nolakotasuna ere garrantzitsua da. Nortzuk dira hizkuntza bien emaleak? Zein harreman afektibo dute umearekin? Eta abar.

3. Hirugarren aldagaia entzundakoaren edo inputaren bereizketari buruzkoa da. Ikerlari gehienek garrantzia handia ematen diote *lagun bat, hizkuntza bat* (Ronjat 1913) lelo pean hizkuntza biak ikasteari, hots, lagun bakoitzak beti hizkuntza bera erabiltzeari eta, ondorioz, haurrak hizkuntza biak bereizita, oso bereizita, entzuteari. Halere, ez dugu ahantzi behar, gehienetan behintzat, haurrak berehala konturako direla guraso biek hizkuntza bat darabilteela elkarrekin ari direnean.

Ezberdinu nahi izaten dena zera da: jabekuntza elebiduna izatea eta hizkuntza bi menderatzea. Baliteke hizkuntza bi oso egoki menderatzea baina hasierako jabekuntza garapena elebakarra izatea. Egoera honetan, hizkuntzetariko bat bigarren hizkuntza bezala ikasi da. Hots, haurra lehenago hizkuntza batez jabetu da eta gero bigarrena entzun eta ikasi egin du.

Gure gizartean, haurrek bigarren hizkuntza eskolaren bidez ikasten dute sarritan. Baina eskolaratzea oso goiz izaten denez eta murgilketaren bidez gertatzen delako, hots, umearen-

tzat etxekoa ez den hizkuntza batean, jazo daiteke eskolak jabekuntza elebiduna bideratzea. Nolanahi ere, berriro aipatzen dugun arren, ezberdindu egin behar ditugu etxean hizkuntza biak ume-umetatik entzun eta ikasi duten haurrek jarraitzen duten garapen elebiduna eta eskolaren bidez, etxetik dakarren hizkuntzaz gain, bigarren hizkuntza bat ikasten duten haurren garapena. Lehen egoeran, hizkuntza biak batera garatzen dira; bigarrenean, aitzitik, bata bestearen ondoren.

Beharbada jabekuntza elebidun orekatuaz hitz egin beharko genuke. Zer litzateke jabekuntza elebidun orekatua?: Hizkuntza biak ume-umetatik, nolabait kantitate eta nolakotasunez era berdinsuan eta berezita entzutea (*lagun bat, hizkuntza bat* leloa jarraituz, alegia). Lehen hizkuntzaz jabetu ondoren bigarrena oso goiz ikasi ezkerro, bigarren hizkuntzaren jabetze goiztiarraren aurrean geundeke. Garapenak, beraz, ezberdinak lirateke. Emaitzak, edozelan, antzekoak izan daitezke bidea ezberdina izan arren.

Jabekuntza elebidunean haurrak hizkuntza biak ia era paraleloan garatuko ditu, hots, hizkuntza ahalmenak eta gramatika kategoriak era bertsuan garatuko ditu. Ikus dezagun adibide bat, esaterako, haur baten garapen morfosintaktikoa. Haur hau elebiduna da, gure ustez jabekuntza elebiduna jarraitu duen haurra. Euskara eta gaztelania, hurrenez hurren, amarengandik eta aitarengandik jaso eta garatu ditu txiki-txikitatik. Bere garapen morfosintaktikoa neurtu dugu euskaraz zein gaztelaniaz (1. taula). Horretarako *Esaldiaren Bataz Besteko Luze-ra* neurketa erabili dugu (Brown 1976; Siguán, Colomina, Vila 1990; Idiazabal 1991). Neurketa sistema honen bidez haurrak ekoizten dituen ehun esaldi jarraiko hitzak eta morfemak zenbatzen dira. Hitz bakoitzak bateko balioa du eta hitzari erantsitako morfemak, baldin badaude, bakoitzak beste horrenbeste. Lehen adibidean (1) haur batek ekoiztiriko esaldi bat eta bere neurketa azaltzen dugu:

(1) ni-k txori-a ikusi-ko d-u-t → 9

ni-k	→ 2 ( <i>ni</i> izenordaina eta <i>-k</i> marka)
txori-a	→ 2 ( <i>txori</i> izena eta <i>-a</i> artikulua)
ikusi-ko	→ 2 ( <i>ikusi</i> aditzoina eta <i>-ko</i> aspektu marka)
d-u-t	→ 3 (oinarria, <i>d-</i> objektuaren marka eta <i>-t</i> subjektuaren marka)

Horrela haurrak ekoiztiriko 100 esaldi jarrai neurtzen dira eta bataz bestekotu ondoren balio bat ateratzen da eginiko grabaketa bakoitzarentzat, *ebb/* balioa hain zuzen.

Garapen morfosintaktikoari begiratzen badiogu, nabaria da ume honengan garapena oso bateratsu gertatzen dela hizkuntza bietan. Horrela, esate baterako, 1;07 adineko lehen saioan oso garapen apala erakusten digu hizkuntza bietan (1,08 euskaraz eta 1,17 gaztelaniaz). 2;00 adinarekin, hizkuntza bietan 2 balioa gainditzen duenean, gauza bera esan dezakegu (2,53 eta 2,46). 2;06 adineko lehen saioan (2,99 eta 3,08), 2;09 adinaren inguruan (3,66 eta 3,55), 3;05 adinekoan (4,56 eta 4,51) eta 3;06 adinekoan (5,09 eta 5,28) beste horrenbeste ikus dezakegu.

Badira gorabeherak, noski, baina, oro har, garapena bateratutzat jo dezakegu. Edo horrela iruditzen zaigu guri behinik behin.

Beste kontu garrantzitsu bat zera da, jabekuntza garapenen erkaketak egiterakoan, datuak gonparatzean, datu bilketan erabili diren metodologiak antzekoak izan behar direla. Soilik antzeko metodologia duten datuak erka daitezke.

## 1. taula: ebbl neurriak

adina	ebbl balioa euskaraz	ebbl balioa gaztelaniaz
1;06	1,02	
1;07	1,08	1,17
1;07	1,10	1,40
1;09	1,35	1,50
1;09	1,44	1,37
1;10	1,71	1,92
1;11	1,96	1,98
2;00	2,53	2,46
2;00	2,13	2,03
2;01	1,97	2,84
2;02	2,41	2,93
2;03		3,08
2;03	2,76	3,10
2;04	3,38	
2;04	3,95	3,02
2;04		3,67
2;05	3,17	3,05
2;06	2,99	3,08
2;07	2,96	3,56
2;08	3,41	3,28
2;09	3,66	3,55
2;10	4,24	4,47
2;11	3,82	3,95
2;11	3,41	
3;00	4,40	4,12
3;01	4,45	5,13
3;02	4,53	5,58
3;03	5,37	4,63
3;04	4,60	4,66
3;05	4,56	4,51
3;06	5,09	5,28

Oro har, datu bilketa era bi daude. Bata, luzaroko datu bilketa da, eta haur berari hamabostero, hileroko edo aldioro eginiko jarraipenean oinarritzen da. Aukerak anitzak diren arren, oro har, urte bi egin aurretik 4 edo 5 urte egin arte irauten dute. Hau guk hautatu eta jarraitu dugun metodoa da. Datu bilketa honi jarraipen longitudinala ere deitzen zaio.

Bestea zeharkako datu bilketa da. Adin bat edo batzuk aukeratzeko dira eta adin hori duten haurrak hartu eta grabatu egiten dira. Horrela, adinen arabera bilakaera haur ezberdinen azter daiteke.

Adibideak jartze arren, esaterako, Euskal Herriko Unibertsitateko HEGEHJ (*Haur Euskara Gaztelania Elebidunen Hizkuntz Jabekuntza*) ikerketa taldeak, Itziar Idiazabal irakaslearen gidaritzapean, eta Hanburgoko Unibertsitateko BUSDE (*Baskisch und Spanisch: Doppelter Erstspracherwerb - Euskara eta Gaztelania: Bi Lehen Hizkuntzen Jabekuntza*) ikerketa proiektuarekin batera, lau haur bidegrabatu dituen hamabostero aldi luze baten (Idiazabal 1991,

Mahlau 1994). Lau haur hauetatik hiruk hizkuntza bi garatu dituzte aldi berean, euskara eta gaztelania. Laugarrenak, ostera, euskara baino ez du garatu adin berean. Grabaketak haurren etxeetan egin dira, 30-45 minutuko iraupena dutelarik, berezko egoeretan gurasoekin, neba-arrebekin zein lagunekin jolasten eta mintzatzen. Gero grabaketak transkribatu egin dira eta transkribapenak zuzendu. Metodologia bera erabilirik Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zubiri irakasleak haur euskaldun elebakar biren datuak jaso ditu (Zubiri 1997). Ikerketa proiektu hauetan jarraitutako umeen berezitasun orokorrak 2. taulan bildu ditugu.

2. taula: luzaroko datu bilketa

	Egoitz	Bianditz	Oitz	Peru	Jurgi	Mikel
hizkuntza egoera	elebakarra	elebakarra	elebakarra	elebiduna	elebiduna	elebiduna
grabaketa hasiera	1;03	1;06	1;05	1;11	1;11	1;06
grabaketa amaiera	4;00	4;00	5;06	5;06	5;06	5;06
sexua	mutikoa	neskatoa	mutikoa	mutikoa	mutikoa	mutikoa
euskalkia	nafarrera	nafarrera	bizkaiera	nafarrera (bizkaiera)	gipuzkera (bizkaiera)	bizkaiera

## 2. GRAMATIKA GAITASUNA ETA PRAGMATIKA GAITASUNA

Meisel-ek eta Mahlau-k (1988), euskara eta gaztelania aldi berean ikasten dituzten ume elebidunen hizkuntza jabekuntzaren azterketa egitea proposatzen duten lan batean, jabekuntza elebidunak zientzialarien artean eragin dituen eztabaidak laburbildu dituzte. Batzuentzat, elebitasunak haurraren osasun psikikoa, morala eta intelektuala kalte ditzake. Besteentzat, ordea, haurraren ezagutza garapenerako onuragarria litzateke.

Eztabaida honen azpian dauden ikuspegi ideologiko ezberdinetatik landa, egileek haurraren garunak hizkuntza bi aldi berean garatzeko ahalmenaz arakatu nahi dute: gai ote da gizakion burmuina hizkuntza bi aldi berean baina bereizita garatzeko?

Jabekuntza elebidunak aztertu dituzten ikertzaileen artean kontzeptu asko nahasita ikusten dutenez, Meisel-ek eta Mahlau-k lau oinarritzko kontzeptu bereiztea proposatzen dute, eurentzat ezberdinak baitira pragmatikari eta gramatikari dagozkion fenomenoak.

Pragmatikaren arlokoak lirateke *kode aldaketa* eta *kode nahasketa*. *Kode aldaketak* elkarrizketan zehar hizkuntzaz aldatzeko haur eta gizaki elebidunek duten gaitasuna adierazten du. Hau, noski, elkarrizketa lagun, gai, egoera zein asmoaren arabera gerta daiteke, eta soziolinguistikari lotzen zaio psikolinguistikari baino gehiago. Hona hemen adibide bat:

- (2) Amak: zer nahi duzu afaltzeko?  
 Haurrak: zer dago?  
 Amak: mailukiak eta jogurta ala porru patatak?  
 Haurrak: nik tortila gura dut  
 Aitak: ¡hola!  
 Haurrak: ¿cuándo has llegado?

*Kode nahasketa* fenomenoa ere pragmatikari dagokio eta hizkuntza bat erabiltzen delarik bigarren hizkuntzari dagozkion atalak eta esaldiak tartekatzean gertatzen da.

(3) nik arrautza nahi dut *para cenar*

*Kode nahasketa* deritzogun fenomenoan, hiztunak hizkuntza bien gramatika sistemak ezagutzen eta bereizten ditu, alabaina, gurata nahasten ditu hizkuntza bien ekoizpenak elkarriketan zehar.

Gramatikaren arlokoak lirateke, ostera, *hizkuntza bereizketa* eta *hizkuntza bateraketa* fenomenoak. Hizkuntzaren jabekuntza, besteak beste, gramatikaren arau sistemaren barnera-tzea edo baitaratzea da, eta ikuspegi honetatik *bereizketa* fenomenoak, jabekuntza elebidune-an, gramatika autonomo bi ikastea da, hizkuntza bakoitzean elebarrerik lortzen duten gramati-ka gaitasun edo maila erdietsiz. Kontuan hartu, ordea, gramatikaz dihardugula eta ez lexikoaz.

*Bateraketak*, ostera, alderantzizko prozedura adierazten du. Fenomeno honen arabera ume elebidunek, gramatikaren jabekuntzaren garapenean zehar, aldi batean behintzat, hiz-kuntza bietan erabiliko luketen sistema bakarra eraikiko lukete. Sistema bakar hau haurrek eu-rek eraikiko lukete bateko zein besteko elementuak harturik. *Bateraketak*, noski, arazoak eta kalteak ekarri diezazkioke haur elebidunari, luzaroen irauten baldin badu behintzat. Batera-ketaren adibidea litzateke, esate baterako, euskaraz izen sintagmaren osagai guztiak pluralaz gauzatzea, gaztelaniaz egin behar den bezalaxe (4).

(4) \*etxe-ak gorri-ak ikusi ditut

Lau kontzeptu hauek mugatzean ikusi dugun legez, garrantzia duten kontuak gramatika-ren arloan omen daude.

Badirudi ikerlari gehienek onartu egiten dutela ume eta heldu elebidunek sarritan erabil-zen dituztela hizkuntza bateko hitzak beste hizkuntzan. Lexikoaren arloko nahasketari, edo-nola ere, ez diote garrantzia handirik ematen. Gainera, sarritan, gurea bezalako gizarte elebi-dunean, lexikoak ez daude hain bereizita. Esate baterako, ondoko adibideetan (5-6), beste hizkuntzetatik jasotako hitzak ote dira *aita* eta *tren*?

(5) aita me lo ha dicho

(6) treno ikusi dut

Oinarrizko lexikoan hainbat hitz darabiltzagu hizkuntza bietan: *patata, zakua, pelota, ko-txea, kamioia, treno, polizia, sirena*,... Hizkuntza menperatzailearen hitzak, edo beraren bidez, egunero-egunero sartzen dira hizkuntza menperatua erabiltzean: *txupa txusa, txikleak, fritoak, jogurta, petisuisa*,... Gainera, haur hizkuntzako hitzak oso antzekoak dira hizkuntza bietan: *pupu, punba, lolo, txitxi, nanan, guauguau*,... Eta, sarritan behintzat, euskaraz mintzatzen ez direnak ere euskarazko hitzak erabiltzen dituzte gaztelaniaz, batez ere haurrekin ari direnean: *txahala, txakurra, ikastola, zirimiria, ertzaina*,...

Gurea bezalako gizarte elebidunetan, sarritan zaila izaten da lexikoaren ezberdinketa ar-gia egitea, batez ere haur txikiekin erabiltzen diren oinarrizko hitzak kontuan izanik.

Gure ustez, beraz, gure garunak hizkuntza bi aldi berean garatzeko gai ote den aztertze-rakoan, gramatika edo kode bi bereizita garatzeko gai den arakatu beharko genuke, eta ez sistema lexiko bi batera eta bereizita garatzeko gai ote den. Lexikoaren jabekuntza, beraz, kanpoan utziko dugu, edo beste berba batzuek ez esanda, ez diogu garrantzi gehiegirik emango sistema lexiko biren bereizketari.

Atal honekin amaitzeko, beste kontu bi azaldu nahi ditugu. Batetik, *interferentzia* deituko duguna. Baliteke, haur batek bi gramatika sistemaz berezita jabetzea, baina arlo edo kategoria baten *interferentzia* bat gertatzea lantzean behin. Hau da, demagun euskararen eta gaztelaniaren gramatikak berezita eraiki dituela ume batek, baina euskarazko ezaugarri bat, aditz iragankorretako subjektuak *-k* markarekin gauzatzea gaztelaniaz ere egiten duela lantzean behin.

Bestalde, hiztun guztiek egiten ditugu *akatsak* (7), elebkarrek zein elebidunek.

(7) \*la casa que vimos el otro día, ya lo conocía

Kontua, beraz, ez da izango ia behin edo birritan akatsen edo interferentziaren bat ikusten dugun, baizik eta ea akats edo interferentzia horrek sistematikoki irauten duen, gutxienez aldi batean.

Azkenik, gogoan izan behar dugu haurrek entzuten duten hizkuntza ikasiko dutela, eta ez hizkuntza horretako akademiak ematen dituen arauak edo hizkuntzalari edo irakasle batek aldarrikatzen dituen legeak.

### 3. GRAMATIKAREN BATERAKETA ALA BEREIZKETA?

Gure hipotesia, beraz, honelaxe laburbil daiteke: etxeko giroan hizkuntza bi aldi berean ikasten ari diren haurrek hizkuntza bi horiek era orekatuan eta berezita entzuten badituzte berezita garatuko dituzte. Ez dugu bateraketa fenomenorik ikusiko eta interferentziak, gertatu ezker, lantzean behingoak izango dira. Gainera, elebidunek hizkuntza bakoitzean elebakarrek erdiesten duten besteko gaitasuna lortuko dutela ere uste dugu.

Eskolaren bidez edo gizartearen bigarren hizkuntzaren bat ikastea, garapena ez da zertan berdina izanetik.

Ikastaro honetan, beste egile batzuk euskara bigarren hizkuntza legez eskolan ikasi duten haurrek jarraitutako garapena erakutsiko digute edo haur galestarrek, bretoiek eta irlandarrek nola ikasi duten gaelera, bretoiera eta gaelikoa bigarren hizkuntza bezala eskolaren bidez.

### 4. DATUAK ETA INTERPRETAZIOAK

Atal honetan datuetan oinarrituriko zenbait ikerketa aurkeztuko ditugu: batetik, gramatika sistemen bateraketa gertatzen dela baieztatzen dutenenak; bestetik, hasiera-hasieratik bereizketa nabarmena dela esaten dutenenak.

#### 4.1. Volterra eta Taeschner ikerlarien ikerketa

Volterra eta Taeschner ikerzaileek (1978) bi neskato elebidunen ekoizpena arakatu dute. Neskatoek alemana eta italiara jaso zituzten etxean jaiotzatik aitarengandik eta amarengandik, hizkuntza biak era orekatuan garatu zituztelarik. Neskatoetariko bat 1;05etik 3;06 bitartean izan zen jarraitua. Bestea, aldiz, 1;02tik 2;06ra bitartean.

Ikertzaile hauek, neskato hauen ekoizpenak aztertu ondoren, etxetik elebidunak diren haurrentzat 3 aroko garapen mailakatua proposatzen dute:

1. aroan, oraindik gramatika erabiltzen hasi ez direlarik, haurrek sistema lexiko bakarra dute. Baliteke sistema lexiko bakar hau entzuten dituzten hizkuntza bietako hitzekin osatua

egotea, baina, oro har behintzat, ez dituzte hitz baliokideak erabiltzen. Aro honetan ez dituzte bi eta hiru hitzeko esaldi asko egiten, batez ere hitz askeak ekoizten dituzte eta.

2. aroan hurrek sistema lexiko bi bereizten dituzte, baina gramatika edo sintaxi arau beraiez baliatzen dira sistema lexiko horietan. Oro har, sistema lexikoak bereizi egiten dituzte ekoizpenetan, baina gramatika sistemak ez.

3. aroan hurrek sistema biak bereizten dituzte, lexikoaren arloan zein sintaxirenean. Nabarria da lexiko sistema bakoitzarekin berari dagozkion gramatika arauak erabiltzen dituztela.

Nolanahi ere, ikertzaile hauen eritziz etxetik elebidunak diren hurrek bi hizkuntzak bereiztea oso goiz lortzen dutela azpimarratu nahi dugu.

Guk, hemen, beraiek proposatzen duten garapen mailakatuaren 2. aroa bakarrik jarri nahiko genuke zalantzan. Gure ustez, etxetik era orekatuan hizkuntza biak entzun eta garatzen dituzten hurrek ez dute 2. aro honetako gramatika sistema bateratutik zeharkatu beharrik. Horretarako, lehenengo eta behin, ikertzaileek eurek eskaintzen dizkiguten datuetara joko dugu.

Bigarren aroa deskribatzean, lexikoaren ikerketaz gain, hiru gramatika atal arakatu dituztela diote: jabetzaren adierazpena edo genitiboaren egitura, adjektiboaren egongunea eta ezeztapena.

#### 4.1.1. JABETZAREN ADIERAZPENA EDO GENITIBOAREN EGITURA

Italieraz *jabegaia* + *di preposizioa* + *jabea* da hurrenkera (8).

- (8) i capelli di Maria  
art ile gen. Miren  
Mirenen ilea

Alemanez, ostera, egitura desberdinak daude. Batetik, alemanera estandarrean *jabea* + *genitibo marka* + *jabegaia* (9) edo *jabegaia* + *von preposizioa* + *jabea* (10) dira hurrenkerak. Bestetik, hegoaldeko dialektoko *jabea* + *izenordaina genitibo* + *jabegaia* (11) hurrenkera ere bada.

- (9) Maria-s Haare  
Miren-en ilea  
Mirenen ilea

- (10) Die Haare von Maria  
art. ile prep. Miren  
Mirenen ilea

- (11) Maria ihre Haare  
Miren bere ilea  
Mirenen ilea

Neskato hauen hizkuntza bietako lehenengo ekoizpenetan genitibo markarik gabe agertzen dira halako hitz pilaketak (12-13). Alabaina, antzeko jokabidea ikus dezakegu beste hizkuntzetako jabekuntza garapenetan.



(12) Giulia Buch (Giulia, 1;09)

Giulia liburua

(13) Lisa bicicletta (Lisa, 2,04)

Lisa bizikleta

Genitiboaren markak ekoizten hasten direnean, italierazko korpusean ohiko hurrenkera aurkitu dugu beti neskato biengan (14-15).

(14) l'amichetta di Luca (Giulia, 2;06)

art. lagun prep. Luca

Lucaren laguna

(15) sono i capelli di Lisa (Lisa, 2;09)

dira art. ile prep. Lisa

Lisaren ileak dira

Alemanazko korpusean hiru motatako adibideak ikus daitezke (16-18).

(16) Giulia ihre Zähne (Giulia, 2;02)

Giulia bere haginak

Giuliaren haginak

(17) das ist die Strasse von Giulia (Giulia, 2;04)

hau da art. kale prep. Giulia

hau da Giuliaren kalea

(18) Nonna Tina-s Bett (Giulia, 3;00)

Nonna Tina-gen ohea

Nonna Tinaren ohea

Neskatoen korpusean aurkitu ditugun antzeko egiturak, italieraz *di* preposizioarekin egitukoak eta alemanez *von* preposizioarekin gauzatutakoak dira. Baina, hau ez da bateraketaren aldeko froga, biak baitira itxarongarriak eta onargarriak. Honez gain, alemanez beste egiturak ere erabiltzen dituzte.

#### 4.1.2. ADJEKTIBOAREN EGONGUNEA

Adjektiboaren egongunea ezberdina da hizkuntza bietan. Alemanez izenaren ezkerrean (19) eta italieraz, aitzitik, eskumatan (20). Edonola ere, italieraz, gartzelaniaz gertatzen den legez, ezkerrean ere aurki daiteke (21).

(19) eine rote Sonne

art. gorri eguzki

eguzki gorria

(20) un sole rosso

art. eguzki gorri

eguzki gorria

(21) bello sole

eder eguzki

eguzki ederra

Adjektiboen egongunea dela eta, 2;08 adina duten arte izenekin batera ekoizten ez dituztela esan behar dugu. Italicieraz, 2;09 adinarekin, hiru aldiz adjektiboa izenaren ezkerrean agertzen delako (22) bateraketa dutela diote ikertzaileek. Kontua da italicieraz hurrenkera hau ohikoa dela eta elebazarrek ere horrela egiten dutela.

- (22) grande pescelino (Lisa, 2;09)  
handi arrain  
arrain handia

#### 4.1.3. EZEZTAPENAREN EGITURA

Ezeztapenari dagokionez, italicieraz ezeztigailua, ez partikula alegia, aditzaren ezkerrean jartzen da (23). Alemanez, berriz, aditzaren eskuman (24).

- (23) Carlo non beve  
Carlo ez edan  
Carlok ez du edaten

- (24) Karl trinkt nicht  
Karl edanten du ez  
Karlek ez du edaten

Italicierazko korpusean, *no* ezeztigailua aditzaren eskuman zein ezkerrean ikus dezakegu 1;08tik 2;09ra bitartean. Ondoren beti ezkerrean. Alabaina, egileek eurek ere dioten legez, horrelakoa izaten da haur elebazarren ekoizpenean.

Zertan ezberdintzen da, orduan, haur elebidunen ekoizpena haur elebazarrengandik? Ezertan ere ez. Haur elebidun hauek egiten dituzten ekoizpen guztiek edo bat datoz erabiltzen ari diren hizkuntzarekin edo haur elebazarrek egiten dituzten ekoizpenekin. Nola baieztatu, beraz, bateraketaren fenomenoak? Gure ustez, hizkuntza bialdi berean garatzen diharduten haurrek elebazarren moduko garapenak jarraitzen dituzte. Bateraketa baieztatzeke, elebazarren garapenean ikusi ez dugun fenomenoak aurkitu beharko genuke.

## 4.2. Redlinger eta Park ikerlarien lana

Redlinger eta Park-ek (1980) urte biko lau haurren ekoizpenak arakatu zituzten. Laburturik, zera esanez amaitzen dute: garapenaren hasieran gramatika sistema bakarra dutela haurrek eta gero urratsez urrats nahasketak gutxituz doala. Euren ustez, garapenaren hasieran ugariagoak dira nahasketak, eta horrexegatik uste dute hasieran sistema bakarra dutela.

Lau haurren aitak alemanez mintzatzen ziren. Ama bi frantsesez eta besteak gaztelaniaz eta ingeleraz. Haurrek, beraz, elebidunak izan arren, hizkuntza ezberdinak ikasten ari ziren, denak Alemanian bizi zirelarik.

Grabaketak 5 edo 9 hilabeteetan luzatu ziren. Saioak haurren etxeetan aurretik prestatu barik grabatu ziren (ikus 3. taula). Oro har, grabaketetan haurren hizkuntza biak erabili zituzten.

3. taula: Redlinger eta Park ikerlarien datuak

haurra	arora	adina	ebbla	“nahasketa”
Marcus	1	2;00;01-2;01;01	1,39	%30
	2	2;01;02-2;02;04	1,47	%19,5
	3	2;02;05- 2;03;16	1,50	%27,5
	4	2;03;17-2;04;22	1,90	%26,8
	5	2;04;23-2;05;20	2,21	%21,2
Danny	1	1;11;22-2;00;12	1,92	%20,8
	2	2;00;13-2;01;23	2,46	%12
	3	2;01;24-2;03;24	3,00	%7,4
	4	2;03;25-2;05;08	2,92	%5,5
	5	2;05;09-2;06;18	3,35	%14,6
	6	2;06;19-2;08;07	4,07	%3,7
Henrik	1	2;04;08-2;05;00	2,89	%11,9
	2	2;05;01-2;06;09	2,98	%8,2
	3	2;06;10-2;09;17	3,04	%9,9
	4	2;09;18-2;11;28	3,74	%6,5
	5	2;11;29-3;01;14	3,94	%5,0
	6	3;01;15-3;02;11	4,87	%2,5
Marc	1	2;08;19-2;09;11	2,66	%2,6
	2	2;09;12-2;10;22	3,36	%2,1
	3	2;10;23-3;00;04	3,84	%2,3
	4	3;00;05-3;01;20	3,61	%0

Taula honetan erakusten zaizkigun datuak aztertu ezkerreko zera dakusagu, Marcus haurra dela nahasketa gehien egiten duena eta Marc, ostera, gutxien egiten duena.

Egileek euren esaten digute zein den honen arrazoia. Marcusen aitak alemanez hitz egiten dion arren, amak gaztelaniaz (% 70 aldiz) eta alemanez (%30 aldiz) egiten dio. Grabaketan ere hizkuntza biak erabiltzen dituzte. Haur honen inguruan, beraz, ez zeuden hizkuntza biak bereizita. Gainera, Marcusen lehen aroan, %30 nahasketa egiten dituenean, egileen ustez haurrak sistema lexiko bakarra baino ez du oraindik, ez du elementu morfologikorik. Egiten dituen nahasketa guztiak, beraz, lexikoaren arlokoak edo kode aldaketa zein kode nahasketakoak izan behar dute.

Marcen inguruan, aldiz, hizkuntza biak bereizita daude. Horixe omen da nahasketa gutxien egitearen arrazoia. Baina baliteke, hau guk gehitzen dugu, ebbl neurrii begiratu ezkerreko, haur honek hizkuntza oso garatua izatea azterketaren hasieran (ebbla 2,66koa du, eta Marcusek, esaterako, azterketaren amaieran 2,21koa baino ez du).

Marcusen ekoizpenetara itzuliz, lehenago esan dugun legez, nahasketatzat fenomeno guztiak hartzen dituzte: lexikoaren erabilera zein kode aldaketa edo kode nahasketa. Adibide-

etan, nahikoa da haurrak hizkuntza aldatzea, nahasketatzat hartzeko ekoizpena (25-26). Beste batzuetan kode nahasketa hartu dute nahasketatzat (26), nabaria denean esaldiaren atal biak egoki daudela taxututa bakoitza bere hizkuntzan.

- (25) Helduak: bitte? (zer?, alemaneraz)  
Haurrak: jabón (xaboia, gaztelaniaz)  
Helduak: Mit der seife. Und was macht er denn hier? (xaboiarekin. Eta zer dago egiten hemen?, alemaneraz)  
Haurrak: putzen zähne con jabón (hortzak garbitzen, alemaneraz, xaboiarekin, gaztelaniaz)
- (26) Helduak: ¿qué hay en los árboles? (zer dago zuhaitzetan?, gaztelaniaz)  
Haurrak: manzanas. Hund schlafen (sagararak, gaztelaniaz, txakurra lo egiten, alemaneraz)

Halako ekoizpenetan hurrek ez dituzte A hizkuntzaren arauak B hizkuntzako esaldia gauzatzeko erabiltzen. Beharbada, nahasi egiten dituzte A eta B hizkuntzetako ekoizpenak esaldi berean, baina atal bakoitza ondo dago eraturita bere hizkuntzaren arauen arabera eta nabarmena da halakoak gauzatzeko beharrezkoa dutela gramatika sistema biak egoki erabiltzea.

Beste hurrengan ere erakusten zaizkigun adibiderik gehienak lexiko arloko nahasketak dira (27-28).

- (27) she's in kirche (hura elizan da, ingelesez baina *eliza* hitza alemaneraz)
- (28) tombé eisenbahn (trena punba, frantsesez baina *trena* alemaneraz)

Egileek eskaintzen dizkiguten adibideak banan-banan aztertu ezker, ez dugu ikusi A hizkuntzaren arau baten erabilera B hizkuntzan. Badira A hizkuntzaren hitzak B hizkuntzako esaldietan B hizkuntzaren arauarekin taxututa, baina hori lexikoaren mailegatzea besterik ez da.

Gure ustez, Redlinger eta Parken lanak, eta bertan ikus ditzakegun adibideek, ez du gramatika sistemen bateraketa erakusten. Ados egon gaitzke hizkuntza bien arteko lexikoen mailegatze egiten dutela edo egin dezaketela esatearekin. Ados, baita ere, kode aldaketa edo kode nahasketa egiten dutela esatearekin (horrela egiten dute nagusiek sarritan ere). Alabaina, ez dugu gramatika sistema bateratuaren erabilerarik ikusi.

### 4.3. Vila eta Cortés-en ikerketa

Vila eta Cortés (1991) ikerlariak Volterra eta Taeschner (1978) ikerlariak proposatutako hiru aldiko garapen mailakatua abiapuntutzat harturik, gaztelania eta katalana aldi berean garatzen ari diren haur elebidun biren ekoizpena aztertu dute. Hauekin batera gaztelau elebaker baten datuak eta katalan elebidun birenak ere erabiltzen dituzte. Elebidunek, etxean garatu dituzte hizkuntza biak, gurasoekin. Grabaketak ere etxean egin dituzte eta aztertzan dituzten datuak 1;02tik aurrerakoak dira.

Lehenengo eta behin lexikoaren jabeakuntzaz arduratzen dira eta nabaria da, erakusten dituzten datuen arabera, hasieran hurrek sistema lexiko bakarra dutela. Gainera, sistema lexiko bakar horretan hurrek gauza bakoitzarentzat hitz bakarra baino ez dute, batzuetan hizkuntza batetik hartua, besteetan bestetik (ikus 4. taula). Haurrak, esaterako, *sagarra* adierazteko hitz bi erabiltzen baditu ere, katalanezko *poma* eta gaztelaniazko *manzana*, esanahi ezberdinak dituzte haurraren erabileran. Katalanezko *poma* fruta jangarria da. Gaztelaniazko *manzana*, aitzitik, frutaren irudia.

4. taula: María del Marren lexikoa (Vila eta Cortés)

adina	gaztelaniazkoa	katalanerazkoa	bietakotzat jo daitezkeenak
1;02;02	0	1	3
1;02;14	1	2	3
1,03;09	3	2	7
1;04;05	5	3	9
1;04;20	5	3	9
1;05;19	10	4	13
1;07;01	16	7	24

Hurrengo hilabeteetan nabaria da lexikoaren haztea, esaterako, 109 hitz 1;08 adina duenean, 113, 1;09 duenean, 184 1;10 duenean, eta abar. Une honetatik aurrera, lexikoa gehitzen dela ikusteaz batera, haurrek sistema lexiko bi dauzkatela, baliokide eta guzti, erakusten digute ikerlariek. Gramatikaren garapena ere une honetan hasten dela esan daiteke.

Nolanahi ere, gramatikari dagokionez, ostera, ikerlariek eurek bateraketarik ez dutela aurkitu esaten dute.

Horretarako, Vilak eta Cortések aditz morfologia aztertu dute, aditz aldiaren morfologia-ren jabekuntza gaztelaniaz eta katalanez, alegia (ikus 5. taula). Taulan ikus daitekeenez, ez dago ezberdintasun handirik hizkuntza bien artean. Agian, alde nabarmenena gaztelaniazko *indefinido* delakoaren eta bere baliokide den katalaneko *preterit perfect* delakoaren artean ikus daiteke.

5. taula: gaztelania eta katalanaren aditzaldien egituraketa

infinitiu	<i>passar</i>	infinitivo	<i>pasar</i>
gerundi	<i>passant</i>	gerundio	<i>pasando</i>
participi	<i>passat</i>	participio	<i>pasado</i>
present	<i>jo passo</i>	presente	<i>yo paso</i>
imperatiu	<i>passa tu</i>	imperativo	<i>pasa tú</i>
indefinit	<i>jo he passat</i>	pretérito perfecto	<i>yo he pasado</i>
preterit perfect	<i>jo vaig passar</i>	indefinido	<i>yo pasé</i>
imperfect	<i>jo passava</i>	imperfecto	<i>yo pasaba</i>
futur	<i>jo passaré</i>	futuro simple	<i>yo pasaré</i>
futur progresive	<i>jo vaig a passar</i>	futuro progresivo	<i>yo voy a pasar</i>

Maria del Mar haurraren datuekin jarraitu ezkerro (ikus 6. taula), hizkuntza bietako aditz aldiak bateratsu agertzen direla ikus dezakegu.

6. taula: aditz aldien agerrera Maria del Marren ekoizpenean

adina	katalanez	gaztelaniaz
2;00	present	presente
2;01	imperatiu	imperativo
2;02	pretèrit indefinit present de subjuntiu	pretérito perfecto imperfecto gerundio infinitivo
2;03	participi	
2;04	infinitiu	participio presente de subjuntivo
2;06	futur simple	futuro inmediato
2;08	imperfect pretèrit perfect	imperfecto futuro simple pretérito indefinido

Egileek horrela laburbiltzen dute aditz aldien garapena:

*el catalán y el castellano son dos lenguas románicas y, por tanto, el estudio de su adquisición simultánea es poco relevante para esclarecer las condiciones del segundo estadio tal y como ha sido propuesto por Taeschner. Sin embargo nuestros datos parecen apuntar a una distinción de las flexiones verbales en catalán y en castellano desde los primeros momentos. Los errores "mixtos" que aparecen parecen remitir a problemas de diferenciación lexical antes que morfológica y, por tanto, a corroborar la existencia de dos sistemas diferenciados desde el primer momento.*

Nolanahi ere, nonbait arazoak egotekotan, katalaneko *pretèrit perfect* (*jo vaig passar*) eta bere baliokidea den gaztelaniako *indefinido* (*yo pasé*) deitzen artean egon beharko du. Hemen, uste dezakegu, hurrek nahas ditzaketela sistema biak eta katalanez *\*jo passe* bezalako akatsak ekoitz ditzakete, edo gaztelaniaz *\*yo voy pasar* bezalakoak. Baina ikerlariek ez dute halakorik aipatzen.

#### 4.4. De Houwer-en araketa

De Houwer (1987, 1990) ikertzailea garapen bereziaren hipotesitik abiatzen da. Bere ustez, haur elebidun orekatuek gramatika sistema biak berezita garatzen dituzte.

Ikertzaile honek lanaren lehen atalean hainbat kontzeptu mugatzen ditu. Esaterako, jabe-kuntza elebiduna, hilabete izan aurretik hizkuntza biak entzuten dituzten haurrena, eta bigarren hizkuntzaren jabe-kuntza goiztiarra, bigarren hizkuntza hilabete bat izan baino gehiagorekin entzuten hasi direnena. Ildo honetatik, munduan zehar eginiko luzaroko datu bilketa guz-

tien azterketa egin ondoren, multzo bi horietan banatzen ditu. De Houwer-ek ez du bateraketaren aldeko datu sineskorrik ikusi, berak dioen arabera behintzat.

Lanaren bigarren atalean, nederlandera eta ingelesez batera jabetzen diharduen haur elebidun baten ekoizpena aztertzen du, 2:07 adina duenetik 3:04 adina duen arte. Ikertzaileak gramatikaren garapena hizkuntza bietan arakatu ondoren, gramatika biak berezita garatu dituela baieztatzen du. Bere ustez haur hau *elebakar bikoitza* da, hizkuntza bietan elebakarren garapena betetzen baitu.

#### 4.5. Meisel-en ekarpena

Meisel-ek (1994), geroago ikusiko dugun legez, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean jabetzen ari diren haurren bereizketa ikertu duen arren, lehenago (1989) alemanera eta frantsesa batera ikasten ari diren haur elebidunen ekoizpena ere arakatu du.

Meisel-ek Volterra eta Taeschner (1978) ikertzaileek proposaturiko hiru aroen garapenaren aurka argudiatzen du, bai Volterra eta Taeschner-ek aurkezturiko datuekin zein berak aurkeztu dituen haur elebidunen datuekin.

Bere ikerketan ume biren datuak arakatzeko, 1:00 adina duenetik 4:00 adina duen arte. Elebidunen ekoizpenen hitz hurrenkeraren azterketa egitean haur elebakarren datuak eta garapenak kontuan hartzen ditu.

#### 4.6. Euskaraz eta gaztelaniaz batera jabetzen diren haur elebidunen ikerketak

Gure ingurura etorri, euskara eta gaztelania morfologia eta sintaxi arloetan hizkuntza zeharo ezberdinak izanik, zertxobait arakatu da haur elebidunen jabekuntza garapena. Agian argitaraturiko lehenetariko ikerketa Meisel-ek berak (1994) egindakoa da. Bertan ezeztapenaren jabekuntzaren garapena arakatzeko.

Meisel-en ostean beste zenbait ikerketa ere burutu dira, hala nola, Idiazabal-ek (1995) determinatzaileen inguruan egindakoa, Ezeizabarrenak (1996, 1997) aditz morfologiaren eta aukerako aditz infinitiboen inguruan egindakoak, Elosegik (1996) preposizio eta postposizio sistemen inguruan egindakoa, Barreñak (1997a, 1997b) izen sintagmaren egituraren inguruan egindakoa, Barreñak eta Almgrenak (1999) subjektuen eta objektuen marken inguruan egindakoa, Barreñak eta Idiazabalek (1997) objektuen marken inguruan egindakoa, Barreñak (1999) mendeko perpausen egituraren inguruan egindakoa, eta abar.

#### 4.7. Izen sintagmaren egituren bereizketa

Izen sintagmaren egiturari dagokionez, gaztelaniaz determinatzaileak izenaren ezkerrean jartzen dira. Euskaraz, ostera, determinatzaile gehienak izenaren edo izen sintagmaren muiaren eskuman jartzen dira (29).

- (29) etxea / etxe bat / etxe hau  
la casa / una casa / esta casa

Edozelan ere, euskarazko determinatzaileak ez doaz guztiak eskuman, eta batzuk ezkerrean ere ikus ditzakegu (30).

- (30) bi etxe (etxe bi) / hiru etxe / zein teilatu? / zenbait gizon

Genitiboen egiturek ere aurkakotasun garbia erakusten digute euskaraz eta gaztelaniaz, hurrenkerari dagokionez behintzat. Gaztelaniaz izenaren eskuman eta preposizio baten bidez agertzen zaigu. Euskaraz, aitzitik, postposizio baten bidez eta izenaren ezkerrean (31).

(31)      la            casa        de            (e)l        hombre        gizon-a-ren    etxe-a  
               1            2            3            4                    5    4 3        2    1

Gainera euskaraz genitibo bi ezagutzen ditugu. Bigarrenari leku-genitiboa deritzogun arren (32). Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak (1985) *-en* eta *-ko* atzizkiak izenlagunak osatzen dituztela dioten arren, *-ko* atzizkiak funtzio ezberdinak betetzen dituela ere adierazten du. Eguzkitzak (1997) *-ko* atzizkia genitibo marka ez dela dio. Bere ustez funtzio bi dauzkan eratorpen atzizkia da, bata postposizio sintagma izen sintagma bihurtzeko, eta bestea izen sintagma adjektibo bihurtzeko.

(32)      el            hombre    de            (e)l        monte        mendi-ko        gizon-a  
               1            2            3            4            5            5    4 3        2    1

Adjektiboen egongunea, aldiz, ez dago hain berezia hizkuntza bietan. Orohar, hizkuntza biek jartzen dituzte adjektiboak izenaren eskuman (33).

(33)      etxe zuria  
               la casa blanca

Alabaina, gaztelaniaz ezkerrean ere joan daitezke adjektiboak, nahiz orduan esanahi pragmatikoa ezberdina izan. Euskaraz ere, zenbait adjektibo ezkerrean jar daitezke, baina gehienetan eskuman jartzen ditugu.

Gaztelaniaz izen sintagmaren osagaiak numeroaren eta generoaren komunztadura izaten dute (34). Euskaraz, ordea, ez da halakorik gertatzen, izen-sintagma bera baita mugatzen dena eta ez beraren osagaiak. Euskaraz ez da genero morfologikorik, eta numero morfologikoa izen-sintagmaren eskumako muturrean adierazten da:

(34)      las            casas        blancas                    etxe        zuri-a-k  
               1 4            2 4            3 4                    2            3 1 4

Haur biren datuak aurkeztuko ditugu; bata, euskaldun elebakarra; bestea, euskaldun gaztelaniadun elebiduna. Biak izan dira txikitatik grabatuak eta euren izen sintagmaren garapeneko datu nagusiak ondokoak dira:

1. Oro har, determinatzaileen ekoizpenean ez dago nahasketatzat jo daitekeen adibiderik. Elebidunak gaztelaniazko determinatzaileak egongune itxarongarrian ekoizten ditu, hots, izenaren ezkerrean (35). Beste horrenbeste esan dezakegu euskarazko determinatzaileen ekoizpenari buruz (36).

(35)      be(s)te ba(t) (M 2;00); behie (M 1;11); zer asto? (M 2;08)

(36)      el coche (M 2;01); un t(r)en (M 2;01); dos vacas (M 2;10); mi papel (M 2;02)

2. Erakusleekin gertatzen dena, ostera, konplexuagoa da, izenaren aurrean ekoiztiriko erakusleak sarritan ikusten baititugu (37). Kontua da guk azterturiko elebakarrak ere horrelakoak egiten dituela.

(37)      hori kamioie (M 2;04)

Haurrek, oro har, hiru motatako ekoizpenak gauzatzen dituzte: erakuslea izenaren ezkerrean (37), erakuslea izenaren eskuman (38) eta erakuslea izenaren eskuman zein ezkerrean errepikatuturik (39). Kontua da, bi haurrak, elebakarra eta elebiduna, bizkaitarrak direla eta eus-kara batuaren eragina handia den arren, bizkaiera ari direla ikasten.



(38) behi hau (M 2;02)

(39) hori kotxe ho(r)i (M 2;10)

Egitura bakiotza noiz eta zenbat aldiz darabilen 7. taulan ikus dezakegu.

7. taula: erakusleen egongunea

	<i>hau etxea</i> elebid./elebak.	<i>etxe hau</i> elebid./elebak.	<i>hau etxe hau</i> elebid./elebak.
2;00	1 - 0		
2;02		1 - 0	
2;03	2 - 0		
2;04	5 - 0	0 - 1	
2;05	0 - 6		
2;06	2 - 6	0 - 3	
2;07	2 - 0		
2;08	0 - 1		0 - 10
2;09	1 - 0		
2,10	0 - 7	0 - 1	1 - 0
2;11	0 - 6		
3;00	9 - 8		2 - 0

Haur biak erakusleak izenaren eskuman ekoizten hasten badira ere, berehala nagusitzen da biengan erakuslea ezkerrean jartzeko joera. Arlo honetan ez dugu ezberdintasunik igartzten elebidunaren eta elebakarraren artean.

Gaztelaniazko egituraren interferentzia ote da? Bateraketa baten aurrean ote gaude? Gure ustez, zaila da bateraketa dela baieztatzea elebakarrak ere horrelaxe egiten duenean. Beste kontu bat litzateke, gaztelaniak euskaran duen eraginaz hitz egitea, baina gu, jabekuntza garapenez ari gara.

Zergatik gertatzen ote da horrela? Guri ondoko arrazoiak datozkigu gogora. Batetik, *hau*, *hori*, *hura* hitzak, deiktiko edo seinalatzaile moduan esaldiaren hasieran jartzeko daukagun joera (40). Bestetik, erakuslea izenaren ezkerrean eta eskuman errepikaturik jartzeko bizkaieraren aukera (39). Gaztelaniaren eragina, egotekotan, haur hauek entzuten duten euskaran legoke, hots, interferentzia helduen hizkeran entzun duelako ikasi du.

(40) hau nirie da (M 2;04)

3. Gaztelaniazko determinatzaileen generoa dela eta haur elebidunak gaztelaniadun elebakarren antzera jokutzen du. Baditu komunztadura akatsak (41), baina hauek elebakarren gan ere ikus daitezke (Hernández Pina 1984, López Oñat 1996, Aguirre 1995). Erabilitako kopuruak 8. taulan ikus ditzakegu (diskordantziak ere adierazi ditugularik).

(41) una caserio (M 2;04); un teta (M 2;07)

8. taula: gaztelaniazko determinatzaileen generoa haur elebakarrengan

	mask.	fem.	disk.		mask.	fem.	disk.
1;10	3	-	-	2;07	33	16	2
1;11	4	4	1?	2;08	31	13	3
2;00	6	5	-	2;10	26	17	1
2;01	18	4	-	2;11	29	30	1+1?
2;02	16	4	-	3;00	21	10	-
2;03	15	2	1	3;01	46	28	4
2;04	15	8	2	3;02	40	29	1+1?
2;05	1	3	-	3;03	19	12	-
2;06	11	3	1				

Gaztelau elebakarren ekoizpenez hona hemen Hernández Pinak (1984) esandakoa berak aztertu zuen umeari buruz:

*Hasta los 24 meses era evidente que el niño observaba que unas palabras exigían unas terminaciones según los casos, pero aún desconocía las reglas para hacer la distinción correspondiente. Dicho uso irregular se prolongó hasta los 27 meses... A los 31 meses se ve una concordancia plena entre el artículo y su nombre -no en los adjetivos...*

4. Pluralaren erabileraren hasieran ere baditu akatsak haur elebidun honek, batzuetan plural markarik ekoizten ez duelako (42), eta besteetan determinatzaileak ez duelako pluralaren markarik (43). Alabaina, gauza bera ikus dezakegu gaztelau elebakarrengan ere (44-45), behintzat Aguirrek (1995) eta López Ornatek (1994) eskainitako datuen arabera.

(42) cuatro gato(s) (M 1;11); mucho(s) coche(s) (M 2;00)

(43) la(s) pinturas (M 2;07); la(s) tetas (M 2;07)

(44) lo(s) papapo(s) (zapatos) (Magín 1;10; iturria: Aguirre 1995)

(45) lo(s) bebés (María 2,04; iturria: López Ornat 1994); la(s) bocas (María 2,04; iturria: López Ornat 1994)

5. Genitiboaren zein adjektiboaren egonguneak beti itxarongarriak izan dira hizkuntza bietako ekoizpenetan (46-49).

(46) teilatu(ar)en gainien (M 2;04)

(47) la casa de Heidi (M 2;07)

(49) kotxe txikitxue (M 2;06)

(49) el cristal roto (M 2;07)

6. Laburbildurik, bada, euskarazko izen sintagmaren garapena haur elebidunarengan haur euskaldun elebakararen garapenaren modukoa izan dela esan dezakegu. Beste horrenbeste esan dezakegu gaztelaniazko izen sintagmaren garapenaren inguruan, elebidunak ekoitzia gaztelau elebakarrek ekoitziarekin erkatuz gero. Gure datuek, beraz, bereizketaren

aldekoak izateaz gain, haur elebidunak elebakarren moduan burutzen dituela garapenak erakusten digute.

Edozelan ere, izen sintagmaren egituraren jabekuntza garapenaren inguruan aurkeztu dugun ikustaldi labur honegaz zera azpimarratu nahi izan dugu: umeez helduen arauetatik desbideraturiko ekoizpenak eginez gero, garapenaren eragaz zerikusia dutela (edo izan dezaketela), kategorien garapena mailakatua da eta.

## 5. ONDORIOAK

Guk hemen aurkeztu ditugun datuen eta azterketen arabera, badirudi hizkuntza bialdi berean garatzen dituzten haurrek gramatika biak bereizita garatzen dituztela. Lexiko arloko nahasketa edo mailegatzea izan daiteke jabekuntzaren garapenean; ez, ordea, gramatikaren arlokoa.

Baina hipotesi hau, txikitik eta etxean hizkuntza biak era orekatuan jaso dituzten haurren garapenerako egokitu dugu. Ezberdina izan daiteke, ostera, elebitasunera eskolaren bidez heldu diren haurren garapena edo eta bigarren hizkuntza legez ikasi dutenen haurren garapena.

Bilduma honetan, hainbat ikerlan irakurtzeko aukera duzue. Batzuetan, etxetik hizkuntza bi garatu dituzten haurren garapenak, besteetan, aldiz, eskolaren bidez bigarren hizkuntza legez ikasi duten haurrenak. Oro har, zenbat eta goizago garatu edo ikasi bigarren hizkuntza, elebakarren garapenera hurbilduko direla ikusi ahal izango dugu. Nolanahi ere, egoera honetan, elebakarren garapenarekin erkatuez gero, ezberdinketak izan daitezkeela uste dugu.

## BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE C. (1995), *La adquisición de las categorías gramaticales del español*, Doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.
- ALMGREN M. & BARREÑA A. (argitaratzeko), "Bilingual Acquisition and Separation of Linguistic Codes: Ergativity in Basque Versus Accusativity in Spanish", K. Nelson, A. Aksu-Koc & C. Jhonson (eds) *Children's Language, Volume 10: Language in Use, Narratives and Interactions*, Lawrence Erlbaum Associates
- BARREÑA A. (1997a), "Desarrollo diferenciado de sistemas gramaticales en un niño vasco-español bilingüe", A. T. Pérez-Leroux & W. R. Glass (eds) *Contemporary Perspectives on the Acquisition of Spanish*, Cascadia Press, Somerville, 55-74.
- BARREÑA A. (1997b), "Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa", *Fontes Linguae Vasconum* 75, 173-217.
- BARREÑA A. (1999), "La adquisición de estructuras subordinadas por un niño bilingüe vasco-español", *III Congreso de Lingüística General: Lingüística para el siglo XXI*, Salamanca
- BARREÑA A. & ALMGREN M. (1999), "Jabekuntza elebiduna eta kode-bereizketa: subjektuen eta objektuen markak", *UZTARO* 29, 61-94.
- BARREÑA A. & IDIAZABAL I. (1997), "Diferenciación bilingüe precoz de códigos: los objetos en español y euskera", L. Diaz & C. Pérez (eds) *Views on the acquisition and use of a second language – Proceedings de Eurosla'7*, Barcelona, Universitat Pompeu Fabra, 157-170
- BROWN R. (1976), *A first language. The early stages*, Cambridge, Harvard University Press.

- DE HOUWER A. (1987), *Two at a time: An Exploration of How Children Acquire Two Languages from Birth*, Doktorego Tesia, Free University of Brussels.
- DE HOUWER A. (1990), *The Acquisition of Two Languages from Birth: a Case Study*, Cambridge, Cambridge University Press.
- EGUZKITZA A. (1997), "Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobidea", *Hizpide* 40, 39-52.
- ELOSEGI K. (1996), *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan*, Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- EZEIZABARRENA M. J. (1996), *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua.
- EZEIZABARRENA M. J. (1997), "Infinitivos verbales en el lenguaje de niños bilingües", L. Diaz & C. Pérez (eds) *Views on the acquisition and use of a second language – Proceedings de Eurosla'7*, Barcelona, Universitat Pompeu Fabra, 177-190.
- GRAMATIKA BATZORDEA (Euskaltzaindia) (1985), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (1)*, Iruñea, Euskaltzaindia.
- HERNÁNDEZ PINA F. (1984), *Teorías psicopsicolingüísticas y su aplicación al español como lengua materna*, Madrid, Siglo XXI
- IDIAZABAL, I. (1991), "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batz besteko luzera (EBBL) edo 'MLU'", Lakarra J. A. (ed), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia, Gipuzkoako Foru Diputazioa - ASJU gehigarria, 1289-1295.
- IDIAZABAL I. (1995), "First Stages in the Acquisition of Noun Phrase Determiners by a Basque-Spanish Bilingual Child", Carmen Silva-Corvalan (ed.), *Spanish in Bilingual Context*. Washington, Georgetown University Press, 260-278.
- LÓPEZ ORNAT S. (1994), *La adquisición de la lengua española, Siglo XXI*, Madrid.
- LÓPEZ ORNAT S. (1996), "Mecanismos de adquisición morfosintáctica", M. Pérez Pereira (ed), *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, euskera (sic) y gallego*, Santiago de Compostela, Universidade de Santiago de Compostela, 175-193.
- MAHLAU A. (1994), "El proyecto BUSDE: Corpus y metodología", J. M. Meisel (ed), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt am Main, Vervuert, 21-34.
- MCLAUGHLIN B. (1978), *Second-language Acquisition in childhood*, Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.
- MEISEL J. (1989), "Early Differentiation of languages in bilingual children", K. Hyltenstam & L. Obler (eds), *Bilingualism across the Lifespan: Aspects of Acquisition, Maturity and Loss*, Cambridge, Cambridge U. P., 13-40.
- MEISEL J. (1994), "La adquisición de la negación en euskera y castellano", Meisel J. (ed), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt', Iberoamericana-Vervuert, 151-180
- MEISEL J. & MAHLAU A. (1988), "La adquisición simultánea de dos primeras lenguas. Discusión general e implicaciones para el estudio del bilingüismo en Euskadi", *Euskara Biltzarrea - Congreso de la Lengua Vasca III*, Donostia, Eusko Jaurkitzaren Argitarapen Zerbitzua, 91-120
- PADILLA A. M. & LINDHOLM K. (1978), "Language mixing in bilingual children", *Journal of Child Language* 5, 327-335.
- REDLINGER W. & PARK T. (1980), "Language mixing in young bilinguals", *Journal of Child Language* 7, 337-352
- RONJAT J. (1913), *Le développement du langage observé chez un enfant bilingüe*, Paris, Champion.
- SIGUAN M., COLOMINA R. & VILA I. (1990), *Metodología para el estudio del lenguaje infantil*, Barcelona, Abril Editorial.

- VILA I. & CORTÉS, M. (1991), "Aspectos relativos al desarrollo lexical y morfosintáctico de los bilingües familiares", I. Idiazabal (ed), *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz Jabekuntza Haur Elebidun eta Elebakarretan*, Donostia, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua, 109-127.
- VOLTERRA V. & TAESCHNER T. (1978), "The acquisition of language by bilingual children", *Journal of Child Language* 5, 2, 311-326.
- ZUBIRI J. J. (1997), *Izen sintagmaren determinazioa eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena*, Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.